ASTIGARRAGA

# Sagardo boladari iritzia

ASTIGARRAGA. DV
J. ORMAZABAL

Gure Udalari zuzendua, —eta bere idatziari amaiera emanaz— aurkeztu dezagun gaur, Antton Arka jaunaren iritzia sagardo boladari buruz. Honela dio: «Ez ahaztu, gu ere oporretatik aparte, herrietako festetara joaten garela —jator moduan pentsatu nahi dut— baina parranda egitera noski. Ez justifikatu polizia —txapelgorrien kontrola eta inefikazia, eta rekurritu eta rekonozitu orain, gure Udaltzaingoaren medio eskasak.

Zuentzat ere, «Sagardo txotxetik, euskara zulotik» izango da lemarik zelebreena euskara normalizazioa bertan behera uzteko. Azkenik kapazak izan, edo bestela besteei utzi Sagardo boladan herri egokipen apropos bat bideratzea, nola bertako lagintza hauen sustapenerako bideak egiten lagundu».

Diario Vasco.
Miercoles, 6 de mayo de 1992